

EGUTEGI ORIENTAGARRIA

A. ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKI-EKINTZETARAKO LAGUNTZEN DEIALDIA

1. mota. Enpleguaren sustapena.
2. mota. Toki-ekintzetarako babesak.
3. mota. Kontrataziorako laguntzak.
4. mota. Enpleguaren sorreran eragina duten beste ekintza batzuk.

EHAAn argitaratutako eguna: 2013ko urriaren 18a, ostirala.

Diru-laguntzaren jasotzaileak: 2012ko maiatzaren 9ko Aginduan eta 2012ko uztailaren 26ko Ebazpenean onuradun moduan agertzen diren **udalak, koadrilak, mankomunitateak eta udalen elkarketak**.

- 1. FASEA: ESKABIDEA

Eskabide-epea: 2013ko azaroaren 18ra arte, astelehena (egun hori barne).

- Gomendioa: hobe da azaroaren 18ko azken egunera arte **ez itxarotea** (gogoan izan ordaindu baino lehen zenbait izapide administratibo egin behar direla edozein diru-laguntzatan; esate baterako, akatsak zuzentzea, ebazpena hartzea...). Horrela, bada, proiektu bakoitza aldeko ebazpenaren bidez balioztatu eta 2013ko abenduaren 31 baino lehen baimendu ahal izango da **proiektuaren kostuaren %80ko** lehenengo ordainketa.

Zuzenketa: jakinarazpena jaso osteko hurrengo egunetik zenbatzen hasita, 10 egunetan.

- 2. FASEA: BETEARAZPENA ETA JUSTIFIKAZIOA

Enplegua sortzeko proiektuen betearazpena: 2014ko irailaren 30ean, asteartea (egun hori barne).

- Epea **luzea** bada ere, **ezin izango da inolaz ere luzatu**.
- Gomendioa: 2014ko urriaren 1etik haratago, Eusko Jaurlaritzak ordainketa-aginduak ixten ditu. Hori dela eta, hobe da epearen amaierara arte ez itxarotea. Hartara, **gainerako %20ko** diru-laguntza jaso ahal izango da indarreko urteko ekitaldiko aurrekontuaren kontura.

Diru-laguntzaren justifikazioa: proiektua amaitu osteko 3 hilabeteetan.

B. ENPRESA-JARDUERA BERRIAK ABIAN JARTZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA

EHAAn argitaratutako eguna: 2013ko urriaren 18a, ostirala.

Diru-laguntzaren jasotzaileak: **onuradunak**. Udalak tutoretza, aholkularitza eta laguntasuna eskainiko ditu bertako langileen bitartez.

- 1. FASEA: IZENDAPENA ERAKUNDE LAGUNTZAILE MODUAN

Eskabide-epea: 2013ko urriaren 31ra arte, osteguna (egun hori barne).

Proiektua aurkeztu eta izendapena egingo da erakunde laguntzaile moduan.

Ondoren, kasuan kasuko lankidetzaz hitzarmena sinatuko da.

- 2. FASEA: ONURADUNAK

Epea: lankidetzaz hitzarmena sinatu osteko hurrengo 5 lanegunetan.

Bideragarritasun-plana egingo da.

- 3. FASEA: TUTORETZA, LAGUNTASUNA ETA NEGOZIO-IDEIA ABIAN JARTZEKO PROZESUA

Aholkularitza-prozesua hasiko da.

Jarduketan hasiera: azaroaren 30a **baino lehen**, larunbata.

Iraupena: 3 hilabete.

Eredua/mota:

-. Hautatutakoari negozioa abian jartzeko laguntasuna emango zaio abenduan, urtarrilean eta otsailean. Sustatzailea ez da egunean 8 orduz egon beharko udal-lokal batean sartuta. Tutoretza 2-3 egunetan egin daiteke astean, eta 2-3 ordu iraun dezake eguneko; edo, kasuan kasuko ekimenaren arabera, egokiena dena.

-. EJZko alta: aurreko etaparen osteko hurrengo 3 hilabeteetan. Aurreko adibidea kontuan hartuta, sustatzaileak 2014ko martxoan, apirilean eta maiatzetan hartu ahal izango du EJZko alta.

Baliabide ekonomikoak 1.000.000 eurokoak izango dira. Horietatik, 500.000 euro 2013ko aurrekontukoak dira; eta 500.000 euro, 2014ko ekitaldikoak.

Zenbatekoa 1.500 eurokoa izango da proiektuko. 500 euro hilean, 3 hilabeteetan zehar.

C. ENPRESA-IDEIA BERRIEN SUSTATZAILEENTZAKO LAGUNTZEN DEIALDIA

EHAAn argitaratutako eguna: 2013ko urriaren 18a, ostirala.

Diru-laguntzaren jasotzaileak: **onuradunak**. Udalak tutoretza, aholkularitza eta laguntasuna eskainiko ditu bertako langileen bitartez.

- 1. FASEA: IZENDAPENA ERAKUNDE LAGUNTZAILE MODUAN

Eskabide-epea: 2013ko urriaren 31ra arte, osteguna (egun hori barne).

Ekintzailetzako proiektua aurkeztu eta izendapena egingo da erakunde laguntzaile moduan.

Ondoren, kasuan kasuko lankidetz hitzarmena sinatuko da.

- 2. FASEA: ONURADUNAK

Epea: lankidetz hitzarmena sinatu osteko hurrengo 5 lanegunetan.

Enpresa-ideia aztertu eta egituratu egingo da.

- 3. FASEA: TUTORETZA ETA LAGUNTASUNA

Aholkularitza-prozesua hasiko da.

Jarduketaren hasiera: azaroaren 30a **baino lehen**, larunbata.

Iraupena: 3 hilabete.

Eredua/mota:

-. Hautatutakoari enpresa-ideia berria sustatzeko laguntasuna emango zaio abenduan, urtarrilean eta otsailean. Sustatzailea ez da egunean 8 orduz egon beharko udal-lokal batean sartuta. Tutoretza 2-3 egunetan egin daiteke asteen, eta 2-3 ordu iraun dezake eguneko; edo, kasuan kasuko ekimenaren arabera, egokiena dena.

Baliabide ekonomikoak 300.000 eurokoak izango dira 2013ko aurrekontuan.

Zenbatekoa 1.500 eurokoa izango da proiektuko. 500 euro hilean, 3 hilabetez zehar.